



## **IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIAREN EBAZPENA, 2020KO MARTXOAREN 11KOA, EAE-KO ARTE DRAMATIKOKO ETA DANTZAKO GOI-MAILAKO ARAUBIDE BEREZIKO ARTE-IRAKASKUNTZETAN MATRIKULATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUENA 2020-2021 IKASTURTERAKO.**

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako goi-mailako arte-irakaskuntzak antolatzeko Errege Dekretuak (1614/2009 Errege Dekretua, urriaren 26koa) 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, bi Errege Dekretu argitaratu ziren: alde batetik, maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretua, 2/2006 Lege Organikoan ezarritako arte dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarrizko edukia arautu zuena, eta, bestetik, maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretua, dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarrizko edukia arautu zuena.

Otsailaren 16ko 23/2016 Dekretuaren bitartez, Arte Dramatikoko goi-mailako irakaskuntza artistikoak ezarri ziren Interpretazio espezialitatean, eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana ere ezarri zen.

Halaber, otsailaren 16ko 22/2016 Dekretuak koreografia eta interpretazioa espezialitateko dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzak eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana ezarri ziren.

Arte dramatikoko eta dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzetarako sarbide-proben antolakuntza, garapena eta ebaluazioa Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak urtero emandako ebazpen bidez ezarriko dira. Ebazpen horietan, gainera, ikasturte horretarako onarpen-prozedura ere ezarriko da.

Ikasle ofizial estatusa matrikula-prozeduraren araberakoa denez (matrikula baita estatus hori lortzeko tresna formala), egokia da praktikan nola garatuko den zehaztea.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

### **EBAZTEN DUT**

#### **LEHENENGOA.- XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA**

Ebazpen honen xedea goi-mailako arte dramatikoko interpretazioa espezialitatean eta dantzako koreografia eta interpretazioa espezialitate irakaskuntzetan matrikulatzeko prozedura arautzea da. Horien aplikazio-eremua ESADD DANTZERTI ADDGE izango da 2020-2021 ikasturterako.

#### **BIGARRENA.- MATRIKULA**

##### **1. Ikasle berriak**

ESADD DANTZERTI ADDGE Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskolan ikasketak egin nahi dituztenek, sarbide-proba arrunta eskatu



ondoren, proba gainditu dutenek eta onartuak izan badira matrikula formalizatu beharko dute ohiko epean, uztailaren 6tik 17ra. Ikastetxeko idazkaritzan bertan, horretarako jarritako gailuen bidez.

Aipatutako epealdian matrikula formalizatzen ez dutenek uko egiten diote lortutako plazarako eskubideari.

Ohiko matrikula-epealdian plazaren bat hutsik geratuko balitz, bigarren epealdi bat zabalduko litzateke iraileko ezohiko sarrera-proba egin eta gero.

2. ESADD DANTZERTI ADDGEn ikasketak egin dituzten ikasleak:

- a. Matrikula egin aurreko ikasturte akademikoan bertan ikasketak egin zituzten ikasleak:

Ohiko epealdian formalizatuko du matrikula, uztailaren 6tik 17ra.

- b. Beste ikasturte batzuetan ikasketak egin ondoren bueltatzea erabakitzen duten ikasleak:

Lehentasuna edukiko dute onarpena espediente-lekualdatze bidez eskatzen dutenen aldean.

- Eskaera: uztailaren 6tik 17ra bitartean.
- Ebazpena: uztailaren 20tik 31ra, plaza kopuruaren arabera.
- Matrikula: irailaren 1etik 11ra.

3. Beste zentzoren batetik espediente-lekualdatzea egiten duten ikasleak

Espediente-lekualdatzetzat ulertuko da jatorrizko zentroko ikasketa berdinak helmuga-zentroan egiteko zentro-aldaketa.

Kasu horretan, ikasleek jatorrizko zentroan gainditutako kredituak aitortzeko eskubidea izango dute, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Lekualdatze-eskaerak zentroan bertan egingo dira, eta onartuko dira baldin eta eskatzaileak baldintza akademikoak betetzen baditu eta zentroan plaza libreak badaude.

Baldintzak:

- Jatorrizko zentroan gutxienez lehenengo mailari dagozkion 60 kredituak gainditu izana.
- Jatorrizko zentroan ikasgaiaren bateko lau deialdi agortu ez izana.
- Ikasketak bukatzeko gehienezko denbora agortu ez izana (sei ikasturte akademiko).

Egutegia:

- Eskaera: uztailaren 6tik 24ra.
- Ebazpena: uztailaren 27tik irailaren 4ra.



- Matrikula: Ebazpena aldekoa bada, plazako matrikula irailaren 6tik 11ra bitartean formalizatuko da. Aipatutako epealdian matrikula formalizatuko ez balitz, ondoriorik gabe geratuko da onarpena.

Ikasleak beste goi-mailako arte dramatikoko eskola eta dantza-eskolaren batean lortutako goi-mailako titulazio ofizialen batean gaitutako kreditu eta irakasgaiak aitortzea nahi baldin badu, matrikula-eskaerarekin batera sinatuta entregatu beharko du kreditu-aitorpenerako eskaria (I eranskina), eta bertan adierazi beharko du zein diren jatorrizko titulazioan gaitutu zituen eta aitortzea nahi dituen ikasgaiak.

Horretarako, ezinbestekoa izango da dagozkion ESADD DANTZERTI ADDGEko ikasketetan onartua eta matrikulatua egotea.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Jatorrizko zentroko ikasketa-ziurtagiria edo konpultsatutako kopia bat. Kopia hori espediente-lekualdatzea egiteko egin dela dioen eginbide batekin aurkeztu beharko da. Bertan, egindako ikasgaiak agertu beharko dira eta zein gairi eta mailari dagozkion adierazi beharko da, ikasturtea ere adierazita. Horrez gain, lortutako notak eta dagozkien ECTSak ere agertu beharko dira, ikasketa-planaren arautegiarekin batera.

Jatorrizko zentroa baimendutako zentro pribatu bat balitz, ziurtagiri horretan zentro pribatu hori zein zentro publikori atxikita dagoen adierazten duen eginbide bat ere gehitu beharko litzateke.

- Egindako ikasgaien irakaskuntza-giden fotokopia (jatorrizko zentroak zigilatutako dokumentu orijinala aurkeztu beharko da).

4. Kasu guztietan, matrikula online edo aurrez aurre egingo da, eta Dantzerti Euskadiko Arte Dramatikoko eta Dantza Goi Mailako Eskolako idazkaritzan jarritako baliabideak erabili ahal izango dira.

## **HIRUGARRENA.– ORDAINTZEKO MODUA**

Ezarritako prezio publiko horiek hainbat modutara ordain ditzakete ikasleek: alde batetik, ordainketa bakar batean ordain dezakete matrikula formalizatzeko orduan, eta, bestetik, hiru epealditan ere egiteko aukera dago. Lehenengoa matrikula formalizatzerakoan ordainduko litzateke, bigarrena 2020ko azaroaren 30etik abenduaren 4ra bitartean, eta hirugarrena 2021eko otsailaren 1etik 5era bitartean<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Agindua, 2018ko maiatzaren 16koa, Hezkuntza sailburuarena, sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Agindua laugarrenez aldatzekoa (maiatzaren 23ko EHAA)



Prezioak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren tasa eta prezio publikoen Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak ezarritako moduetan ordaindu ahal izango dira.

Ezarritako epealdietan ordainketak ez betetzeak matrikula-espeditentea etetea ekarriko du.

Etete hori eta ordainketa egiteko errekerimendua jakinaraziko zaizkio interesdunari, eta 10 eguneko epea izango du ordainketa egiteko, errekerimendu horren berri jasotzen duenetik hasita. Egingo ez balu, interesdunak onartua izateagatik zegozkion eskubide guztiak galduko lituzke eta ez litzaioke momentu horretara arte ordaindutakoa itzuliko.

## LAUGARRENA.- PREZIO PUBLIKOAK<sup>2</sup>.

1.- Dantzako goi-mailako ikasketen zerbitzuengatik, tasa hauek ordainduko dira:

|  |         |
|--|---------|
| 1.- Espedientea irekitzea ikastetxeren batean ikasketak hasten direlako                      | 27,34 € |
| 2.- Derrigorrezko zerbitzuak   | 6,00 €  |
| 3.- Kurtso osoa (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa)   | 20,00 € |
| 4.- Gaingitu gabeko irakasgaiak; bigarren matrikulazioa (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa)   | 28,80 € |
| 5.- Gaingitu gabeko irakasgaiak; hirugarren matrikulazioa (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa) | 43,30 € |

2.- Arte Dramatikoko goi-mailako ikasketen zerbitzuengatik, tasa hauek ordainduko dira:

|  |         |
|--|---------|
| 1.- Espedientea irekitzea ikastetxeren batean ikasketak hasten direlako                      | 27,34 € |
| 2.- Derrigorrezko zerbitzuak   | 6,00 €  |
| 3.- Kurtso osoa (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa)   | 23,00 € |
| 4.- Gaingitu gabeko irakasgaiak; bigarren matrikulazioa (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa)   | 33,10 € |
| 5.- Gaingitu gabeko irakasgaiak; hirugarren matrikulazioa (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa) | 49,80 € |

<sup>2</sup> Agindua, 2015eko uztailaren 9koa, Hezkuntza sailburuarena, sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Agindua bigarrenaz aldatzekoa (maiatzaren 23ko EHAA)



## **BOSGARRENA.- MATRIKULA-ESKUBIDEAK.**

- 1.- Matrikularen prezioa ordaintzeak bi azterketa-deialditarako eskubidea emango du matrikulan zehaztutako ikasgai bakoitzeko, ikasturte beraren barruan, betiere.
- 2.- Ezarritako prezio publikoaren guztizkoa behin ordainduta, ikasleek ordaindutako kopurua bakarrik jasotzeko eskubidea izango dute, prezio hori ordaintzera derrigortutako pertsonari egotzi ezin zaizkion kausengatik ekintza egingo ez balu edo dagokion zerbitzua jasoko ez balu.

## **SEIGARRENA.- PREZIO PUBLIKOEN SALBUESPENAK, MURRIZTAPENAK ETA HOBARIAK.**

Agindu honetan araututako goi-mailako arte-irakaskuntzetako prezio publikoen salbuespen eta murrizketen onuradun izateko, interesdunek egoera jakin horretan egon beharko dute ikasturtearen hasieran, eta kasu bakoitzean beharrezkoak diren agiriak eman beharko dituzte. Data horretan, aitorpena izapidetzen ari bada, aitorpen- edo berrikuspen-eskaeraren kopia konpultsatua emanez egiaztatuko da.

Dokumentu guztiak urte horretako abendua bukatu baino lehen eman beharko dira.

Ezarritako epealdian agiri horiek eman ezean, automatikoki baliogabetuko dira emandako onurak, eta salbuespena edo murrizketa aplikatu zaizkien prezio publikoak ordaindu beharko dituzte.

### **1. Familia ugaria**

Familia ugariko ikasleek prezio publikoen salbuespen eta murrizketetarako eskubidea izango dute, baldin eta familia ugaritzat aitortuta badaude, familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legean jasota dagoen bezala.

#### **1.1 Tratamendua:**

- a) Prezio publikoen salbuespena, kategoria bereziko familia ugarietakoak badira.
- b) Prezio publikoen % 50eko murrizketa, kategoria orokorreko familia ugarietakoak badira.

#### **1.2. Aurkeztu beharreko agiriak:**

Dagokion foru aldundiak edo arlo honetan eskumena duen administrazioak emandako titulu ofiziala, zeinak familia ugarikoa dela aitortzen baitu (kategoria ere adierazi behar da bertan), eta administrazio-egoitzaren ziurtagiria edo errolda-ziurtagiria.

2. Terrorismoaren biktima eta horren senidea.
  - 2.1. Terrorismoaren biktimek eta haien senideek agindu honetan araututako salbuespen eta murrizketetarako eskubidea izango dute, baldin eta terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren arabera halakotzat aitortuta badaude.
  - 2.2. Tratamendua: salbuespena, aipatutako azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 26. artikuluan arautua.
  - 2.3. Aurkeztu beharreko agiriak: Terrorismoaren Biktimentzako Laguntza Programara atxikita daudela adierazten duen ebazpena eta administrazio-egoitzaren ziurtagiria edo errolda-ziurtagiria.
  
3. Matrikula itzultzea, kredituen aintzatespenagatik.
  - 3.1. Behin zentroan plaza lortuta, ikasleak kredituen aintzatespena eskatu ahal izango du, eta eskaera izapidetuko du horren bidez, egindako ikasketen ziurtagiri akademiko pertsonalarekin batera.
  - 3.2.- Zentroak Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara bidaliko du eskaera, ziurtagiri akademiko pertsonalarekin eta dagokion ebazpen-proposamenarekin batera.
  - 3.3.- Izanez gero, kredituen aintzatespena ikaslearen espediente akademikoan jaso beharko da, eta dagokion ikasgaiaren tasen itzulera eragingo du.
  - 3.4 Kredituen aintzatespena lortuz gero, matrikularen ordainketa edo egokitzapena itzuliko da.

## **ZORTZIGARRENA.- MATRIKULA ETA DEIALDIA DEUSEZTATZEA, IKASLEAK HALA ESKATURIK.**

- 1.- Ikasturtea hasten den urte naturaleko azken irakasteguna baino lehen, ikasturte osoaren matrikula deuseztatzea eskatu ahal izango du ikasleak. (II. eranskina) Matrikula deuseztatzeak ekarriko du prezio publiko gisa ordaindu diren zenbatekoak itzultzea, eta matrikulatu ez den ikaslearen kontsiderazio bera izango du ikastetxean jarraitzeari begira.
- 2.- Ikasturte osoko matrikula ezesten duen ikasleak ikastetxeko ikasle izaera galduko du, eta, beraz, ondorengo kurtso batean matrikulatu nahi izango balu, haren matrikula ikastetxean dagoen plazen mende egongo da.
- 3.- Oro har, ikasleak irakasgaiaren deialdiari uko egitea eskatu ahal izango du irakasgaia ematen amaitu baino hamabost egun lehenago arte, ikastetxeak urteko bere programazio orokorrean edo, hala dagokionean, irakasgaiaren irakas-gidan ezartzen duen egutegiaren arabera, zeina ikastetxeak argitaratuko baitu. (III eranskina)



## **BEDERATZIGARRENA.–MATRIKULA GALTZEA ESKOLA PRESENTZIALETARA HUTS EGITEAGATIK.**

1.– Baldin eta ikasle bat eskoletara joaten ez bada eskola-hilabetez jarraian edo matrikulatuta dagoen irakasgaiei dagozkien irakastordu presentzial guztien % 30 huts egiten badu uneren batean, ikastetxeko zuzendariak, ikasleari entzun eta gero, ikasle horren matrikula deuseztatuko du, hargatik eragotzi gabe artikuluko honen 2. apartatuan xedatua.

2.– Justifikatutako arrazoiengatik huts eginez gero eskoletara, horren berri eman beharko dio interesdunak ikastetxeko zuzendariari, eta, kasu horretan, interesdunak ez du galduko ikasle izaera, non eta ez duen bi hilabetez baino gehiagoz jarraian huts egin eskolara edo ez duen pilatu matrikulatu deneko irakasgaiei dagozkien irakastordu presentzialen % 50eko asistentzia-falta.

3.– Matrikula deuseztatzearen ondorioz, zeina interesdunari idatziz dudarik gabe jakinaraziko baitzaio, ikasleak galduko du, batetik, ikastetxeko ikasle izaera, eta, bestetik, matrikula gisa ordaindutako prezio publikoa.

## **HAMARGARRENA.– TITULU OFIZIALAK.**

Arte Dramatikoko eta/edo Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzak gaindituta, Interpretazioko Arte Dramatikoko goi-mailako eta/edo Dantzako Goi Mailako Titulua eskuratuko da, Koreografia eta Interpretazio espezialitatean. Titulu horiek ofizialak izango dira, eta Estatuko lurralde osoan izango dute balio akademikoa eta profesionala.

Arte Dramatikoko eta Dantzako goi-mailako tituluak eta ziurtagiri akademikoak emateagatiko tasak tarifa honen arabekoak izango dira:

|                 |          |
|-----------------|----------|
| 1. Jatorrizkoak | 104,66 € |
| 2. Kopia        | 6,82 €   |

(Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretua).

## **HAMAIKAGARRENA.– DATU PERTSONALAK BABESTEIA.**

Organo kudeatzaileek eskabideetan eskuratutako datu pertsonalak honako prozedura hau antolatzeke erabiliko dituzte: 2020-2021 ikasturtean, Euskal Autonomia Erkidegoko ESAAD DANTZERTI ADDGE Eskolan matrikulak egiteko prozedura, zeinaren arduradun baitira organo kudeatzaile horiek. Hori guztia, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorrean eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko.



Gainera, esleipen-prozesuan parte-hartzaileei buruz sortzen diren informazio eta zerrendak Ikasgunean kontsultatu ahal izango dira, baina ezingo dira argitaratu iragarki-oholetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuak tratatuak izateko mugak ezartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere. Horretarako, idazki bat igorri behar dute Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 11a**

**Eugenio Jiménez Ibáñez**  
**IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA**





**II. ERANSKINA****MATRIKULA DEUSEZTATZEKO ESKAERA****IKASLEAREN DATUAK**

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

DNI/NIE: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Helbide elektronikoa: xxxx@xxxxx

Helbidea Udalerria: \_\_\_\_\_ Posta-kodea: \_\_\_\_\_

Lurralde historikoa: \_\_\_\_\_

Ikastetxe honetan matrikulatua: \_\_\_\_\_

**ADIERAZTEN DU:**

Heziketa-zikloko ikasturte honetan matrikulatuta dagoela: \_\_\_\_\_

(Adierazi eskabidea justifikatzen duten arrazoiak):

- 
- 
- 

**ESKATZEN DU:**

Matrikula deusezta dakiola.

Ondorio horretarako dokumentazio hau aurkeztu du:

- 
- 
- 
- 

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ ren \_\_a

Sinadura:

(E)KO ZUZENDARIA

**III. ERANSKINA****DEIALDIARI UKO EGITEKO ESKABIDEA****IKASLEAREN DATUAK**

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

NAN/AIZ: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

Helbidea. Udalerria: \_\_\_\_\_ Posta-kodea: \_\_\_\_\_

Lurralde historikoa: \_\_\_\_\_

Ikastetxe honetan matrikulatua: \_\_\_\_\_

**ADIERAZTEN DU:**

Heziketa-zikloko ikasturte honetan matrikulatuta dagoela: \_\_\_\_\_

(Adierazi eskabidea justifikatzen duten arrazoiak)

- 
- 
- 

**ESKATZEN DU:**

Honako lanbide-moduluak ebaluatzeari eta kalifikatzeari uko egitea:

- 
- 
- 

Ondorio horretarako, dokumentazio hau aurkeztu du:

- 
- 
- 

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ ren \_\_a

Sinadura:

(E)KO ZUZENDARIA